

Gasnalsa, kalitatean aitzindari

Arabako ETEa EFQMren saria lortzen aitzindaria izan da

Klub 400

Irizar, ITP, GKN Ayra Durex, Fagor elektronika, eta beste batzuek gain, Euskalitek kudeatzen duen Klub 400eko kide da Gasnalsa enpresa. Elkarte honetan dauden erakundeek gutxienez EFQM ereduak ezartzen dituen 400 puntuak gainditzen dituzte.

Euskadin Guztizko Kalitatearen bidea lantzen duten enpresek Euskaliten sariak jasotzen dituzte. 400 puntura iristen diren enpresek zilarrezko Q saria jaso dute, eta Europako ereduaren 500 puntu lortu dituztenek, urrezkoa. Bi hauen gainetik Europako EFQM erakundeak eskaintzen duen saria dago (hori lortzeko, derrigorrezkoa da eskala horretan 600 puntu lortzea). Hain zuzen ere, hori lortu zuen 1997an Araban gasa banatzen duen enpresa txiki honek. Beraz, edozein enpresa izan daiteke elkarte honetako kide.



Luis Ramon

Gasnalsako zuzendaria

MIREN SAEZ

Arabako Gasnalsako ordezkariak, enpresaren 25. urteurrenean, aurtengo urtarrilean.

«Langileak pertsona eta langile bezala erakunde baten parte sentitzea lortu dugu»

kuntzarako eta bezeroaren harremanak hobetzeko erabili zuten. «Hori lortzeko, komertzio bulegoetako langileen helburua bezeroa lehentasun bezala hartzea zen. Eta era berean, hauen esku uzten zen arazoak konpontzeko ardura», azaldu digu Luis Ramonek. Izan ere, lan egiteko sistema berri honen

oinarri nagusia hierarkia haustea da. Horregatik, hierarkia eta departamentuetan banatutako sistema alde batera utzi eta horizontalki antolatutako sistema nagusitu da enpresan.

Dudarik gabe, bezeroek lortu dute onura handien lan egiteko sistema honetatik. Eta hauei egiten zaizkien inkestetan nabaritzen da hori. Baina horrez gain, bezero kopuruan eta emaitza ekonomikoetan ikus daitezke enpresak lortutako emaitza

onak. Langileen aldetik ere hobekuntza handiak izan dira; hala azaldu digu Luis Ramonek: «Pertsona eta langile bezala erakunde baten parte sentitzea lortu dugu».

Sistemak enpresan ongi finkatuta jarraitzen duen arren, lana ez da hor amaitzen, prozesuak atal asko baititu. Lehendabizi, sistema berria ezartzen da, eta gero, neurketa egin eta helburuak finkatzen dira. Izan ere, oso garrantzitsua da neurtzea nor-

bere enpresa non dagoen besteekin alderatuz gero: «Konparaketak egitea inportantea da», esan digu Luis Ramonek.

Etorkizunean ere kalitatearen alde lan egiten jarraitzeko asmoa dute Gasnalsako lankideek. 1992-93 urteak izan ziren gogorrenak. Orain merkatu askerako enpresa prestatzen ari dira. Bestetik, kalitatean lortu dituzten bi ziurtagiri eta segurtasun araua batu eta kalitate sistema bakarra sortu nahi dute.

kalitatea, gure nortasunaren agiri a




Enekuri errepidea



Etxebizitzak Zarateamon



Ilgner eraikina



Pío Baroja, 3-1. C • 48001 BILBAO • Tel.: 94 661 20 34 • Faxa: 94 425 72 47 • E-mail: olabarri@olabarri.com • http://www.olabarri.com

